

## **M 17ko MANIFESTUA. LGTBIFOBIAREN AURKAKO EGUNA**

30 urte dira, 1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) Batzar Nagusiak homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik kendu zuela. Ordutik, maiatzaren 17ak oso balio esanguratsua du lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualentzat, kolektibo horrek gaur egun aurre egin behar dion diskriminazioaren aurkako eta eskubideen aldeko jardueren ardatz katalizatzailea da eta.

Aurten, COVID-19aren ondorioz etxean erdi konfinaturik geratu behar garenez, ezin izango da kalera irten manifestatzera, baina, berdin jarraituko dugu salatzen sexu eta genero aniztasunarekiko gorrotoak sortarazten dituen erasoak. Eraso horiek gure inguruan eta 70 estatutan baino gehiagotan gertatzen dira; izan ere, ILGA txostenaren arabera, sexu orientazioa kriminalizatzen da, eta horrek esan nahi du ehunka biktima hil direla, gay, lesbiana eta transexualak izateagatik.

Ezin dugu ahaztu, halaber, herrialde askotan LGTBI komunitateak diskriminazioari aurre egin behar diola mediku arreta jasotzeko orduan, Human Rights Watchek dokumentatu duen bezala. Diskriminazio horrek hainbat gaixotasun kronikoren arretan eragin dezake, eta, ondorioz, LGTBI pertsonak gaixotasun larriak izateko edo COVID-19ren ondorioz hiltzeko arriskuan egon daitezke bereziki.

Berdindu zerbitzutik, maiatzaren 17an, Euskadi inklusiboa aldarrikatu nahi dugu, gizarte zaintzaile eta proaktiboa, LGTBI kolektiboak oraindik aurre egin behar dien diskriminazio planoen aurkako borrokan eta eskubideak lortzearen alde ahaleginak batuko dituen. Aniztasunetik abiatuta bizikidetzaren bermatzaile izango den Euskadi, hizpide dugun eremuan ulertu beharrekoa, baina, bistan denez, baita osotasunean ere.

Uste dugu gizarte eragile guztien zeregina dela gizarte errespetuzkoagoa, bidezkoagoa eta integraztaileagoa eraikitzea, gure lan agendetan LGTBI kolektiboarekiko konpromiso esplizituak hartuz, oraindik indarrean dauden diskriminazio planoen aurkako borrokan aurrera egin dezagun. Eta horixe da Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoa Berdindu zerbitzuaren bitartez, LGTBI kolektiboarentzako Informazio eta Laguntza Zerbitzua hain zuzen ere. 2002an sortu zenetik, etengabe dihardu helburu hori sendotzen. Arretaren oinarrizko ardatzak pertsonen, ikastetxeei eta familiei laguntza ematea dira. Lan heterogeneoa da, eta, zalantzarik gabe, oso lagungarria da sexu eta genero aniztasunarekiko ideario errepikakor bat sortzeko, baita ere, LGTBI pertsona asko ahalduntzeko ere.

Ulertzen dugu estatuen lehentasuna COVID-19ren gaia dela eta haren ondorioak lantzea da, baina Berdindu zerbitzutik inoiz baino gehiago jarraituko dugu LGBTI pertsonen eta haien ingurunearen ondoan, LGTBIfobiaren aurka borrokatuz, pertsona guztientzat berdintasuna eta askatasuna lortu arte.

## MANIFIESTO 17M. DÍA CONTRA LA LGTBIFOBIA

Hoy hace 30 años, un 17 de mayo de 1990, que la Asamblea General de la Organización Mundial de la Salud (OMS) retiró la homosexualidad de la lista de enfermedades mentales. Desde entonces, el 17 de mayo tiene un valor altamente significativo para las personas lesbianas, gays, trans, bisexuales e intersexuales como eje catalizador de las actuaciones en favor de los derechos y contra la discriminación a la que a día de hoy debe hacer frente dicho colectivo.

Este año 2020, y desde el semi-confinamiento en casa debido al COVID-19, no se podrá salir a la calle a manifestarse, pero, no por ello dejaremos de denunciar las agresiones provocadas por el odio a la diversidad sexual y de género. Estas agresiones ocurren tanto en nuestro entorno como en los más de 70 estados, en los cuales según el informe ILGA se criminaliza la orientación sexual, lo que significa la muerte de cientos de víctimas gays, lesbianas y transexuales.

Tampoco podemos olvidar que en muchos países, la comunidad LGTBI se enfrenta a discriminación a la hora de acceder a la atención médica tal y como ha documentado recientemente Human Rights Watch. Esta discriminación puede afectar a la atención de diversas enfermedades crónicas que pueden hacer que las personas LGTBI estén particularmente en riesgo de sufrir enfermedades graves o la muerte como resultado de COVID-19.

Desde el Servicio Berdindu, queremos este 17 de mayo reivindicar una Euskadi inclusiva, una sociedad vigilante y proactiva que aúne esfuerzos en pro de la consecución de derechos y en la lucha contra los distintos planos de discriminación a que aún hoy debe hacer frente el colectivo LGTBI. Una Euskadi que se constituya en garante de la convivencia desde la diversidad, término que ha de ser entendido en el ámbito que nos ocupa, pero, evidentemente, también en su globalidad.

Consideramos que es tarea del conjunto de agentes sociales construir una sociedad más respetuosa, justa e integradora a través de la asunción en nuestras agendas de trabajo de compromisos explícito con el colectivo LGTBI que nos haga avanzar en la lucha contra los distintos planos discriminatorios aún vigentes.

Y éste es el compromiso asumido por el Gobierno Vasco a través de Berdindu, Servicio de Información y Asistencia al colectivo LGTBI del Gobierno Vasco, que, desde su creación en el año 2002, trabaja incesantemente en la consolidación de dicho objetivo. Atención a personas, centros escolares y familias, configuran sus ejes básicos de actuación, un abordaje heterogéneo que, sin duda, está contribuyendo de forma muy positiva a la creación de un ideario repetuoso para con la diversidad sexual y de género, así como al empoderamiento de un gran número de personas LGTBI.

Entendemos que la prioridad de los estados es tratar el tema de COVID-19 y sus efectos pero desde el servicio Berdindu seguiremos más que nunca al lado a las personas LGBTI y su entorno, luchando contra la LGTBIfobia hasta conseguir una sociedad verdaderamente igual y libre para todas las personas.